



# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA

## Oinarrizko kontzeptuak.

### IRAUPENA ETA DATAK

5 aste

Euskara. Maiatzaren  
6tik ekainaren 11ra

### MATRIKULA

Irekita, aldez aurretiko  
eskakizunik gabe.

Egiaztatutako 25  
prestakuntza-ordu

Esan dezakegu gure gizartean gertatu den aldaketa handienetako bat emakumeek berdintasun formala lortzea izan dela. Oztupoak desagertzen joan dira, berdintasuna giza eskubideen defentsaren erdigunean jartzeko prest zeuden emakume eta gizon askoren borrokari eta konpromisoari esker.

Halere, "berdintasunaren ameskeriari" ezin diogu irabazten utzi, eta gaur egun indarrean dauden desberdinkeriak alde batera utzi. Kontrakoa egin behar dugu: indarreko gizarte-ereduari buruzko hausnarketa sakona egin behar dugu; bestelako gizarte bat nola eraiki daitekeen ulertu, gero eta berdinzaleagoak izango diren eredu berriak eraiki ahal izateko. Berdintasun-politikak eta horien araudia eta irismena ezagutu eta aztertu behar ditugu, baita politikek emakumeen ahalduntze-estrategiekin duten lotura aztertu ere.

### HELBURUAK

- Sexu-genero sistemaren oinarrizko kontzeptuak ezagutu eta definitzea.
- Diskriminazio- eta desberdintasun-egoerak identifikatzea eta egoera horien esanahiak eta aplikazioak ulertzea.
- Errealitatea genero-ikuspegitik hobeto ulertzea.
- Egitura sexista horretatik eratorritako ideia, pentsamendu, jarrera eta portaeren alternatibak identifikatu eta proposatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lan-estrategia publikoak eta horien lan-proposamenak ezagutzea.
- Emakumeak ahalduntzeko kontzeptu nagusiak eta gaur egun egiten dituzten berrikuspenak eta ekarpenak ezagutzea.
- Berdintasun-politiken ibilbidea, bilakaera, aplikazio praktikoa eta berdintasunerako lanean planteatzen diren erronkak ezagutzea.
- Azterlan feministen eta generokoen ekarpena ulertzea.





# EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

## Oinarrizko kontzeptuak.

---

### IRAUPENA ETA DATAK

5 aste

Euskara. Maiatzaren

6tik ekainaren 11ra

### MATRIKULA

Irekita, aldez aurretiko eskakizunik gabe.

Egiaztatutako 25 prestakuntza-ordu

### UNITATE DIDAKTIKOAK

1. modulua.

Genero-desberdinkeria eragiten duten oinarrizko elementuak. Sexu-genero sistema eta generoaren sozializazioa. Genero-berdintasunaren kontzeptua.

2. modulua.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkerien diagnostikoa.

3. modulua.

Berdintasun-politikak. Bilakaera eta kontzeptu nagusiak.

4. modulua.

Aurrerapausoak eta erresistentziak berdintasunerako bidean. Emakumeen ahalduntze-prozesua.

### IRAKASLEAK

**Ainoa Al Rifaie (EUS)** Berdintasun-agentea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako masterra, bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide-heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleak trebatzeko masterra (EHU/UPV) arte ederretako lizentziaduna, Bartzelonako unibertsitatea.

### FORMAKUNTZAREN MODALITATEA ETA BALDINTZAK

**Oinarrizko prestakuntza.** Moduluetako irakasleen tutoretza dute, ikasleei laguntzeko eta parte hartzeko foroak dinamizatzeko. Ikastaroa gainditzeko, beharrezkoa da prestakuntza-modulu bakoitzeko testak gainditzea eta azken lan bat egitea eta onartzea.

Ikastaroa gainditu ondoren, egiaztatzea emango da.

